

Ait Chaou eta Zubillaga azkarrenak, Amasako proban

63 korrikalarik hartu dute parte 29. Loatzo Igoera-Jaitsiera proban; 44 minutu eta 54 segundo behar izan ditu Ait Chaouk, eta 53 minutu eta 38 segundo Zubillagak // 7



Hassan Ait Chaou billabonatarra eta Oihana Zubillaga anoetarra, lehen gizonezko eta emakumezkoa, eta Leire Elola tolosarra, bigarren emakumezkoa. ATARIA

June Aiestaranek irabazi du eskolarteko bertsolari txapelketa

Harituzeko kideak bigarrenaz jantzi du txapela, eta ekainean izango den Euskal Herriko txapelketarako txartela lortu du, bigarren geratu den Danel Etxeberriarekin batera // 4



Joanes Goitisolo ezkerrean eta Maddi Marquet eskuinean, Zizurkilgo helmugara iristeko unean. NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Joanes Goitisolo eta Maddi Marquet garaile, duatloian

Zizurkilgo II. Duatloian Goitisolok, Herranek eta Muruak osatu dute gizonezkoen podiuma eta emakumezkoena, berriz, Marquetek, Morenok eta Jauregik; 230 parte hartzaile izan dira // 7



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 LITERATUR SORPRESA-KAXA BI

Txikientzako hilabetero etxean:

- Album ilustratu bat
- Podcast bat
- Irakurketa gida bat
- Ariketa/eskulan ezberdinak
- + sorpresa gehiago

paperezkoak.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkarte
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57
portuzar@birdcenter.org
www.birdcenter.org

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Lagun birentzako bina sarrera

Karrantza
626 622 245
infokarpin@gmail.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53





EGOITZ LUISA ALKATEGAI

Egoitz Luisa Urkola da Anoetako EH Bilduren alkategaia. «Talde sendo eta esperientziaduna» osatu dutela esan du. «Adin eta bide ezberdinetako herritarrez osatutako taldea da, eta horrek herriaren beharrak ikuspuntu zabalago batetik ulertzeara ahalbidetzen du», gehitu du. ATARIA



AZPIROZEK GIDATUKO DU TALDEA

Lizartzako EH Bilduk aurkeztu du zerrenda. Iñaki Azpiroz Beldarrain da alkategaia eta atzetik ditu Jone Zubeldia Altuna, Eneko Arteaga Usandizaga, Xabino San Sebastian Murua, Izaro Zubiria Ibarguren, Irati Zabala Urritza eta Itziar Saenz de Ojer Martinez. ATARIA



RODRIGUEZ ZERRENDABURU

Kristina Rodriguezek gidatuko du Adunako EH Bilduren taldea eta alboan izango ditu Xabier Zabala, Jone Olasagasti, Ainhoa Arruti, Xabier Tejeria, Ainhoa Arretxe, Igone Zaloña, Joxe Mari Sarasola, Miren Aburuza eta Leire Saizar. «Lanerako prest gaude», esan dute hautagaiek. ATARIA



EIZAGIRREK ERREPIKATUKO DU

Herritarrekin herriarentzat leloa aukeratu du Leaburu-Txaramako EH Bilduk eta egungo alkatea, Joxerra Eizagirre, da alkategaia, eta atzetik ditu Luixa Uzkudun, Juanma Serrano, Mertxe Araztegi, Arkaitz Esnaola, Mertxe Adurriaga eta Agus Etxarte. Esperientzia handiko taldea dela esan dute. ATARIA

✉ GUTUNAK

Galdera ahaldun nagusirako hautagaiei

Maiatzaren 28an Udala eta Foru Hauteskundeak izango ditugu gure herrialdean. Gure herriak eta Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatuko dituzten pertsonak aukeratu ditugu herritarrok, hautagaiek aurkeztutako programa oinarritzat hartuta. Guk, udal hautetsi garen neurrian, arreta bereziz aztertuko ditugu Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzeko asmoa duten pertsonen egiten dituzten proposamenak eta garatu asmo dituzten programak. Izan ere, gure udalek aldunditik jasotzen dute beren baliabide ekonomikoaren zati oso inportantea, bereziki inportantea landa herri txikien kasuan.

Gipuzkoako udalok foru aldunditik bi molde nagusien bidez jasotzen ditugu gure herritarren ongizatearen zerbitzura jarriko ditugun baliabide ekonomikoak: batetik, foru funtsa eta, bestetik,

diru laguntza deialdiak. Oro har, diru laguntza deialdien bidez inbertsioak (herri bideak, eraikin publikoak eraberritzea, herri-azpiegiturak osatzea...) eta programa espezifikoak (aisialdia, kultura, berdintasuna...) finantzatzen ditugu udalok. Halaber, erakunde publiko nagusien laguntza ere jaso dezakegu programa horiek finantzatzeko. Laguntza hauek deialdi lehiakorren bidez banatzen dira.

Foru funtsa udal guztiok jasotzen dugu. Landa udal txikien kasuan, udalak duen diru sarrerarik handiena foru funtsa da, urteko aurrekontu osoaren %60 baino handiagoa kasurik gehienetan. Zer egiten dugu udalok diru horrekin? Erraz esateko, udala irekitzeko aukera ematen digu: herri-langileen soldata eta funtzionamendu gastuak pagatzeko baliatzen dugu funtsa nagusiki. Funtsak irauteko oinarria ematen digu, baina ez haztekoa ezta herritarrek egun eskatzen dituzten zerbitzuak egoki ematekoa ere.

Bestalde, administrazioaren burokrasia asko hazi da azken hamarkadetan. Udaloi gero eta lan administratibo handiagoa eta korapilatsuagoa egitea eskatzen zaigu, baina ez zaizkigu horretarako baliabide osagarriak eskaintzen. Finean, udalok duela 30 urte genuen azpiegitura administratibo bera segitzen dugu izaten. Udal-langileak lanez lepo, tramiteak atzeratu egiten dira eta, ondorioz, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak ez dira egokienak izaten sarri. Foru funtsaren tamaina emendatzea konponbidea izan daitekeela pentsa lezake Urliak. Alabaina, funtsaren tamaina handituta ere, horrek ez du konpontzen, gure iritziz, landa herri txikien finantziazioaren arazoa, egiturazkoa baita.

Iruditzen zaigu foru funtsaren izaera eta udal finantziazioaren egitura birpentsatu beharko lirakeela datorren legealdian, Gipuzkoako udalen arteko ekitatea indartzeko bidean. Foru funtsaren oinarrian dagoen filosofia ka-

fea guztientzat esaldiarekin defini daiteke. Izan ere, udalerriaren biztanle kopurua da udal bakoitzak jasoko duen diru kantitatea zehazteko oinarritzat hartuta. Doiketa mekanismoak minimoak dira. Funts banaketak ez du aintzat hartzen udalerriak zein ezaugarri dituen, adibidez, udal barrutian industria poligonorik baduen ala ez, edo zenbateko ekonomia jardueren gaineko zerga jasotzen duen herriko enpresetik. Biztanle kopurua irizpide nagusietako bat izateak ondorioa izaten du egoera demografiko antzekoa duten bi herritako biztanleek udalaren aldetik zerbitzu maila desberdina jasotzea, batek industria poligonoa duelako eta besteak ez. Lehenak seguruenik udal-langile gehiago izango ditu, zerbitzu gehiago eskaini ahal izango ditu eta diru laguntza opa-ragoak banatu ahal izango ditu herritarren artean. Esan daiteke Gipuzkoan baditugula landa herri txikien artean lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Egoera

hori ez da ekitatezkoa; ez du Gipuzkoa berdina egiten. Izan ere, gure herrialdean garatzen diren politiken helburu nagusietako bat beharko luke izan herritarrek udalen bidez jasotzen dituzten zerbitzuen kalitatea parekoa izatea, edozein delarik bizi garen herria. Ez da, tamalez, kasua. Foru funtsak ekitatera hurbiltzen lagun lezake, birpentsatzen eta egokitzen badira egun indarrean dauden banaketa irizpideak.

Gipuzkoa gobernatzeko asmoarekin hauteskunde lehian jarri diren hautagaiei galdera bat botako diegu lerro hauen bukaera moduan. Konprometitzen al zara foru funtsaren irizpideak berraztertzea eta udal finantziazioaren egitura birpentsatzea zure agintaldiaren agendan ipintzera?

Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkatea
Iñaki Irazabalbeitia Alkizako alkatea
Iñaki Orbegoza Albizturko alkatea
Maribi Garmendia Balarraingo alkatea
Aitor Zubillaga Hernialdeko alkatea
Migel Anjel Arsuaga Orendaingo alkatea



BERROBI BIZI PLATAFORMA OSATU DUTE

Berrobiko herritarrek Berrobi Bizi herri plataforma osatu dute maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako. Zazpi hautagai eta hiru ordezkok osatzen dute taldea, bost emakumezko eta bost gizonezko, eta Aitzol Izquierdo izango da hauteskundeetarako zerrendaburua. YON GARIN



TALDE «KONPROMETITUA» OSATU DUTE

Amasa-Villabonako EH Bilduk Beatriz Unzué buru duen talde «konprometitua» aurkeztu du, esperientzia eta berritasuna uztartzen dituen eta «lan egiteko ilusioa duena». Unzueren atzetik doaz Xabat Laborde, Iruñe Alfonso, Eñaut Zelarain, Arantza Lopez, Ander Goikoetxea, Ander Etxeberria, Eneritz Ugartemendia eta Gurutze Astiasaran. Unzuék nabarmendu du «esperientzia eta berritasuna» uztartzen direla hautagaitzan. JON MIRANDA

Tolosaldeko EAJk alkategaiak aurkeztu ditu

Tolosa, Amasa-Villabona, Ibarra, Zizurkil, Anoeta, Irura, Asteasu eta Ikaztegiako zerrendaburuen berri eman du



Tolosan egin zuten aurkezpena larunbatean, Mendoza eta Urkullurekin. J.M.

Jon Miranda Tolosa

Tolosaldeko EAJk maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan alkategai izango diren hautagaiak aurkeztu zituen larunbatean Tolosako Alondegi plazan egindako agerraldian.

Tolosako hautagai jeltzalea Xarles Iturbe izango da, Amasa-Villabonakoa Eneko Urdangarin, Ibarrakoa Rodrigo Vilar, Zizurkilgoa Maije Zelaia, Anoetakoa Nuria Carbonell, Irurakoa Gorka Sagarna, Asteasukoa Aitziber Egaña eta Ikaztegiakoa Anton Elosegi. Egungo Tolosako alkateak Olatz Peonek zabaldu zuen ekitaldia: «Etorkizuna gidatzeko alkategai ezin hobeak ditugu. Eskerrik asko erronkari eusteagatik. Ilusioa, indarra eta determinazioa duzue».

Hautagaiak hartu duten konpromisoan jarri zuen indarra Peonek eta hitza eman zion bere lekukoa hartu eta Tolosan EAJren alkategai izango den Iturberi.

Honek adierazi zuen azken urteetan herria asko aldatu dela eta herritarren bizi kalitatea nabarmen hobetu dela. «Eraldaketak sakon horren atzean apustuak daude, apustu estrategikoak EAJk egindakoak: Apatia industriagunea, auzo berrien garapena, adineko pertsonen egoitzak, gazteentzako bizitokiak...».

Iturberen esanetan, alderdi jeltzaleak urteetan egindako «lan mardulari» eta hartutako erabakiei zor zaizkie aurrera pauso horiek.

Iturbek etorkizuneko Tolosa marraztu zuen, euskaltzalea, kulturalki bizia eta XXI. mendeko mahai gaineratu dituen berdintasunaren, aldatuta klimatikoaren eta jasangarritasunaren erronkei sendotasunez erantzuten asmatuko duena.

Alkategaiak aurkezteko ekitaldian Gipuzkoako ahaldu nagusi izateko hautagaiak, Eider Mendozak, eta Iñigo Urkullu lehendakariak hartu zuten parte.


Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



Pepita Etxeberria Murua
(Joxe Arandia-ren alarguna)



Apirilaren 23an hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Bere seme-alabak: Maitere, Arantxa eta Jexux, Jose Antonio eta Ima; bilobak: Aintzane eta Jon Ander, Alain, Julien eta Uxue, Irati; anai-arrebak: Baleri (†), María (†) eta Luis (†), Joxe (†) eta M^a Kontxi, Margari eta Inazio (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

AMA, AMONA, SENIDE MAITEA!!

AMEZKETA, 2023ko apirilaren 25ean.

June Aiestaran txapeldun, Gipuzkoako Eskolartekoan

Danel Etxeberria tolosarra izan da bigarren; Harituzeko bi kideek Euskal Herrikoan abestuko dute

Irati Saizar Artola

Pasa den ostiralean jokatu zen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala, Lasturren. Harituzeko bertso eskolatan dabilen June Aiestaran beasaindarrak jantzi du txapela, eta bigarren sailkatu da Danel Etxeberria tolosarra.

Sei finalistetatik bost ziren Harituzeko bertso eskoletan aritzen direnak. Aiestaran eta Etxeberriarekin batera, Izar Zelarain, Jon Mendiluze eta Beñat Zeberio aritu ziren kantuan, eta Amets Aizpurua getariarrekin osatu zuten seikotea. Ane Ezenarro aurkeztu zuen saioa, eta epaile lanetan, Maite Sukia, Oihana



Finaleko bertsolariak, Ane Ezenarro aurkezlearekin eta Unai Mendizabal Harituzeko kidearekin batera. BERTSOA.EUS

Aranguren eta Bakarne Urreaga aritu ziren.

Aiestaranek Unai Mendizabal Harituzeko kidearen eskutik jaso zuen txapela. Tolosaldeko Ber-

tsozale Elkarguneak 10 urte betetzen ditu aurten, eta Gipuzkoako Bertsozale Elkartek lan horri aitortza egin nahi izan dio.

Horrela, Aiestaranek eta Etxe-

berriak Euskal Herriko finalean kantatzeko txartela eskuratu dute, eta Harituzetik bi ordezkari izango dira lehian, ekainean jokatu den finalean.

Bigarren urtez jarraian jantzi du txapela, Gipuzkoako Eskolartekoan, Harituzeko kide den June Aiestaranek (Beasain, 2006). «Espero gabe», baina «pozik» hartu du saria, eta Danel Etxeberriarekin batera ariko da Euskal Herriko finalean, ekainean.

Zer moduz zaude txapela irabazi berrian?

Txapela beti da pozik hartzekoa. Aurten, bereziki hartu dut pozik, ez nuelako irabaztea espero. Seitik bost bertsolari Harituzekoak ginen, eta banekien zegoen mailagatik ez zela erraza izango.

Nolako saioa egin zenuten?

Saio azkarra izan zen, hasterako bukatu egin zela iruditu zitzaidan. Momentuan irudipena nuen guztiok ari ginela asmatzen, bakoitza ariketa desberdinetan, baina oso saio ona zihoa. Orain entzun ditut bertso batzuk eta hala iruditu zait orain ere.

IRAGARKI LABURRAK

Salerosketa

Eskopeta. Sanjoanetako eskopetarien egunerako, eskopeta bat beharko nuke. Bai erosketa, bai alokairua interesatzen zait. 626 75 27 44.

«Neure buruari balio dudala sinestarazteko izan dadila txapela»

JUNE AIAESTARAN BERTSOLARIA

Egindakoarekin gustura?

Beti dago zer hobetua, eta orain, seguruenik, kantatutakoak entzutean, seguru bertso bakoitzean bilatuko dudala hobetzeko zerbait. Baina, egia esan, oso gustura geratu nintzen egindakoarekin. Erraz aritu nintzen, eguna ere ona tokatu zitzaidan, eta ideiaz ere ondo ibili nintzela uste dut.

Saioan bertan nabaritu zenuen txapela zurea izan zitekeela?

Saioa hasi aurretik banekien lehenengo geratu nintekeen bezala geratu nintekeela azkena. Baina, saioan bertan, ariketa bat bukatu eta ondo egin nuela ikusten nuen, eta beste bat ere ondo, beste bat ere bai... ariketa puntuagarriz guztiak bukatu nituenean konturatu nintzen posible zela eta banuela aukera txapela irabazteko.



Zure izena entzutean, zer pasatu zitzaizun burutik?

Azken hiru hilabeteak etorri zitzaizkidan gogora. Hilabete hauetan bertsoei asko eskaintzen aritu gara bertso eskolan, eta harro sentitu naiz bai neuregatik, eta baita bertso eskolagatik ere, nabaritu nuelako urtean zehar egindako lanak bere fruitua eman duela. Iaztik plazak dezente ugaritu zaizkit, eta nahitaez esperientzia txiki horrek ematen dizu jendarean kantatzeko beste erosotasun bat. Urte honetan bereziki, bertsoan aurrerapausoak eman ditudala uste dut.

Bigarren aldiz izan zara txapeldun.
Ingurukoek esan zidaten txapel honek erakusten duela lehengo urtekoa ez zela egun on bat bakarrik izan, honek erakusten duela gai naizela. Neure buruari balio dudala sinestarazteko izan dadila txapela.

Sei finalistetatik bost zineten Harituzeko kideak. Lagunartek horrek laguntzen du?

Saioaren aurretik behin baino gehiagotan esan genuen bertso eskola bat gehiago izan behar zuela finalak. Hasieratik talde giro handia izan genuen, eta horrek urduritasunak arintzen la-

gundu zidan batetik, eta gusturago kantatzen eta konfiantza gehiagor aritzen bestetik.

Agurra ingurukoei abestu zenien, zure buru jatea arintzen laguntzeagatik. Urduri ibili zara azken boladan?

Nahi baino gehiago. Finalerako baino kanporaketarako urduria go nengo. Iaz txapela irabazi nuenez, berez existitzen ez zen finalera pasa behar bat sentitzen nuen. Baina finalerako presio hori ikusezin egiten eta ahalik eta gehien gozatzeko nerbio horiek arintzen saiatu naiz.

Ekainean, Euskal Herriko finalean izango zara.

Orain aritu naizen bezala aritu nahiko nuke orduan ere, gustura eta gozatuz. Izan ere, iaztik arantzatzatxo bat daukat, ez nintzelako erabat eroso aritu. Neuretik kantatu nahiko nuke, behar denean umoretsu eta hala eskatzen duenean serio. Gozatu egin nahi dut, besterik ez.

Txapela janzteko asmo berezirik gabe zoaz?

Egia da presiorik gabe zoazenean sorpresak ilusio handiagoarekin hartzen direla, beraz, probatzera eta esperimintatzera joango naiz, eta etorri behar duena etorriko da.

Jende asko elkartu da Ikaztegietakoko eta Orendaingo azoketan

Ikaztegietan, Euskal Azokaren bueltan egun osoko festa egin dute; Orendainen estreinakoz egin dute azoka, eta herritarren erantzuna oso ona izan da

Erredakzioa

Ikaztegieta/Orendain

Bi urtez behin egiten duten hitzorduren txanda izan zen larunbatean Ikaztegietan, Euskal Azoka. Goizean goiz, eguraldia ez zuten aldeko eta zalantzak ere izan zituzten azokaren kokalekuaren inguruan, baina azkenik arriskatu eta elizaren bueltan kokatzea erabaki zuten, eta baita asmatu ere. Jendea gerturatzen hasi zenerako ostarteak zabaldu baitziren Ikaztegietan.

Zortzigarren azoka izan da aurtengoa, elizaren bueltan jarritako 25 postuetan era guztietako artisauak bildu ziren. Antolatzailleen esanetan, urtetik urtera jende berria erakartzen saiatzen dira, eskaintza askotarikoa bul-tzatuz. Eta postuz postu joanez, horrela antzeman zitekeen jan-edanak, osagarriak, arropak, eskulanak, pilotak, jostailuak... denetarikoko produktuak. Artisau asko eskualdekoak, eta baziren baita kanpokoak ere.

Pako Belea konpartsa herrian zehar ibili zen goizean zehar, etxeko txikiak gozamenerako. Horretaz gain, egurrezko jostailuez gozatzeko aukera ere izan zuten gaztetxoek.

Balardiako Inaxio Arinen eta Mattin Jauregiren eskutik, bazkaria dastatu zuten ondoren 70 herritar inguruk, eta arratsaldean musika eta garagardoa izan zituzten festa giroarekin jarraitzeko.

ORENDAINEN LEHENENGOA

Askotariko postuak ikusi ahal izan ziren Orendainen igandean, lehen aldiz egin zuten azokan. Hain justu, 29 postu jarri zituzten pilotalekuan, eta eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende asko bertaratu zen. Herriko eta inguruko baserritarren produktuak eta artisauen lanak izan ziren eskura, eta gose zegoenak tripa betetzeko aukera ere izan zuen, haragi egosi eta txistorra pintxoekin.



Pako Belea konpartsa, larunbatean, Ikaztegietakoko azokan. N. ROLDAN DE ARANGUIZ



Jende ugari gerturatu zen Ikaztegietakoko azokara. N. ROLDAN DE ARANGUIZ



Askotariko postuak jarri zituzten Orendainen, igandean. L. CARRASCO



Damaiturri inguruan, hamaiketako egiten. ATARIA

Damaiturriko proiektua bukatu dute

Auzolanean aritu dira azken urtebetean Damaiturri inguruan; Tolosatik bertara iristeko seinaleak eta geziak jarri dituzte

Erredakzioa Tolosa

Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoa, Tolomendi Landa Garapen Elkarte, Zumardia Elkarte eta Tolosako Udaleko Auzolandegien eskutik, Damaiturriko auzolanaren proiektuari amaiera eman diote.

Urtebete inguru aritu dira auzolanean, eta igandean egin zuten amaiera ekitaldia, ibilaldi batekin. Tolosatik abiatuta egin zuten ibilaldia, eta geziak eta seinaleak jarri zituzten bidean, San Esteban auzotik bertara nola

iritsi markatzeko; Damaiturrin bertan azken ukituak eman zituzten eremuari, eta hamaiketako eder batekin amaitu zuten. «Aurrerantzean ere, denon artean jarraitu beharko dugu auzolanean tokiaren mantentze-lanetan», azaldu dute.

Iker Iriarte eta Pablo Dendaluze auzolanari buruzko dokumentala grabatzen ari dira Tolomendiren laguntzarekin, eta uztailearen hasieran prest izatea espero dute. Igandekoa dokumentalerako azken irudiak hartzeko baliatu zuten.



LEHEN URTEURRENA

70 urtez itxita izan eta gero, iaz ireki zuten Amezketako Iera-bizkar errota, eta urtemuga ospatzeko festan murgildu ziren herritarrek, igandean, Pello Zabala gunean. Zaldizketako Edurne Barriola bertan izan zen, eta pintxoak dastatzeko aukera ere izan zen, musikaz alaiturik. ATARIA

KIROL EMAITZAK

Areto futbola

BIGARREN B MAILA

28. jardunaldia
Tafa - Lauburu Ibarra 0-4

Sailkapena

- 1. Anaitasuna 71p
- 2. Pinseque 63p
- 3. Otxartabe 62p
- 4. Lauburu Ibarra 53p

Hurrengo jardunaldia

Lauburu Ibarra (4) - Villa de Quel (9)

HIRUGARREN MAILA

26. jardunaldia

Laskorain - Leioako Ibaraki 1-1
Lagun Onak - Tolosala 3-2

Hurrengo jardunaldia

Kukuyaga Etx. (12) - Laskorain (4)
Tolosala (11) - Aurrera de Vitoria (2)

Eskubaloia

1. MAILA NAZIONALA

28. jardunaldia

Lodisna San Antonio 24
Tolosa CF Eskubaloia 24

Sailkapena

- 1. Romo Broker Kirol 50p
- 2. Helvetia Anaitasuna 49p
- 4. Mecalbe Eibar Eskubaloia 37p
- 5. Tolosa CF Eskubaloia 35p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa Eskubaloia (5)
Il Capo Hondarribia Bidaasoa (8)

1. LURRALDEKO SENIOR MAILA

23. jardunaldia

Zuhegan Orio Eskubaloia 22
Tolosa CF Eskubaloia 27

Sailkapena

- 1. Mecalbe Eibar Eskubaloia 39p
- 8. Tolosa CF Eskubaloia 21p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF Eskubaloia (8)
Munttarpe (7)

Futbola

1. MAILA NAZIONALA

27. jardunaldia

Dux Logroño B - Tolosa CF 0-5

Sailkapena

- 10. Arratia 35p
- 11. Tolosa CF 31p
- 12. Berrioar 28p
- 13. Real Racing B 23p
- 14. Logroñes 22p

Hurrengo jardunaldia

Tolosa CF (11)
Mulier (9)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

GIZONEZKOAK

29. jardunaldia

Tolosa CF - Añorga 0-1

Sailkapena

- 1. Eibar 56p
- 12. Zarautz 38p
- 13. Mutriku 36p
- 14. Tolosa CF 36p

Hurrengo jardunaldia

Zarautz (12) - Tolosa CF (14)

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

EMAKUMEZKOAK

26. jardunaldia

Urnieta 0
Tolosa CF 1

GORENGO MAILA GIZONAK

26. jardunaldia

Anaitasuna - Tolosa CF 4-0
Aretxabaleta - Billabona 1-2
Danena - Segura Goierri 0-1

GORENGO MAILA EMAKUMEAK

Kopa, 7. jardunaldia

Aiztondo Neskide 1
Irauli Bosteko 2

1. ERREGIONALA, KOPA

10. jardunaldia

Orereta Kafea - Intxurre 2-7

Saskibaloia

EUSKAL LIGA, 1. MAILA

23. jardunaldia

Redline Mekanika TAKE 83
Megacalzado Ardoi 29

Sailkapena

- 1. Valle de Egues 21-2
- 2. Redline Mekanika TAKE 20-3
- 3. Ulacia 18-5

Hurrengo jardunaldia

San Ignacio - Nasabi (14)
Redline Mekanika TAKE (2)

GIPUZKOAKO 1. MAILA

13. jardunaldia

CD Internacional 62
Eguzkitza Sagardotegia TAKE 47

Sailkapena

- 1. Easo Basket 12-1
- 3. Eguzkitza Sagar. TAKE 9-4

Hurrengo jardunaldia

Eguzkitza Sagardotegia TAKE (3)
Erroibide Urbycolan (7)

SENIOR GIZONEZKOAK 2. MAILA

22. jardunaldia

Eibar Saskibaloia 64
Elorri-Aldapa 58

Nesken kadete mailan bandera lortu dute

Euskadiko Batel Txapelketa izan da jokoan asteburuan, eta TAK klubetik lau ontzi izan dira bertan parte hartu dutenak

Erredakzioa Tolosa

Euskadiko Batel Txapelketan parte hartu dute asteburuan, TAK klubeko lau ontzik. Emaizta nabarmenena kadete mailako neskek lortu zuten, lehen postua eta bandera eskuratuz. Oso estu lortu zuten irabaztea, 19 ehuneko bakarrik atera baitzizkieten San Juan batelari. Hirugarren Kaiku izan zen.

Nesken beste bi batelek hirugarren postua lortu zuten. Infantil mailakoek aurretik Hernani eta Ondarroa izan zituzten eta laugarrena izan zen San Juan batelari 22 ehuneko atera zizkieten. Jubenil mailakoek, berriz, Kaiku eta San Juan izan zituzten aurretik. Nesken hiru batelak asteburu honetan izango dira Ses-taon jokatu den Espainiako



Nesken kadete mailakoak, Euskadiko Txapelketaren banderarekin. TAK

Txapelketan. Beste batelak, mutilen kadete mailakoa, B finalean parte hartu zuen, bigarren postua lortuz Mundakaren atzetik. Bestalde, emakumezkoen ab-

solutu mailan, Donostiarrak irabazi zuen txapelketa. Batel horretan parte hartu zuten Olatz Lopez eta Nerea Perez tolosarrekin eta Maider Zumeta ibartarrak.

Zapore gazi-goza buruz buruko txapelketan

Erredakzioa

Buruz Buruko Pilota Txapelketan, aurreko asteburuan jokatu zituzten lehen jardunaldiko hiru partida. Laugarrena, Laso eta Altunaren artekoa, igandean izan zen, Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Kantxan agindu egin zuen Altuna III.ak, eta erakustaldia emanda irabazi zion egungo txapel-dunari (9-22).

Partida ederki hasi zuen Lasok, sakez min egiten eta eskuinarekin gozatuz. 5-2 aurreratu zen, baina Altunak sakez zabale-ra egindako bi tantok erabat aldatu zuten dinamika. Tanto gogor batzuk jokatu zituzten jarraian, baina amezketarraren alde erori ziren guztiak. Neurketak biribila egin zuen, eta ez zion aukerarik eman Lasori.

Datorren larunbatean Elezkano II.aren aurka jokatu du Lasok, Iruñean. Igandean, berriz,

Altunak eta Elordik Eibarren jokatu dute.

TXAKALALDIA JAKAK

Bi partida desberdin ikusi ziren larunbat arratsaldean Labriten. Peio Etxeberriak 22-12 irabazi zion 9-2 aurreratu zen Erik Jakari. Lizartzarrak hasiera bikaina izan zuen, sakearekin asmatuta. Aspekoak, baina une txarretan sufritzen jakin zuen, eta markagailua irauli zuen berehalako batean. Jakak sufritu egin zuen frontoian. Txakalaldi izugarria izan zuen, eta berak ere ez zion arrazoirik aurkitu partida amaitzerakoan.

Larunbateko emaitza horrek, gainera, zenbait kontu argitu zituen. Porrotarekin buruz burukoan aurrera egiteko aukerarik gabe gelditu da Jaka. Peio Etxeberriak, berriz, Joseba Ezkurdiaren aurka jokatu du finalerdietara sailkatzeko partida.

Eneko Maiz Lehen Mailako Binakako Txapelketako finalean

AMASA-VILLABONA // Eneko Maiz billabonatarak, Luis Sanchez egungo banakako txapel-dunarekin bikotea osatuz, Etcheverria-Ducassou bikoaren aurka jokatu du finala, igandean, 11:00etan hasita, Baionako trinketean. Historian lehen aldia izango da Hego Euskal Herriko pilotari batek, eta aldi berean Hego Euskal Herriko bikote batek, binakako finala jokatu duena.

Ander Martinez de Rituertok brontzezko domina lortu du

TOLOSA // Unibertsitateen arteko atletismoko Espainiako Txapelketa izan da asteburuan jokoan Leonen (Espainia), eta bertan lehiatu dira Ander eta Eunat Martinez de Rituerto anai-arreba tolosarrak, EHU ordezkatuz. Anderrek pertika jauzian parte hartu zuen eta 4,90 metroko jauziarekin hirugarren postua lortu. Eunat altuera jauzian lehiatu zen eta bosgarren izan zen 1,68 metroko jauziarekin.

Goitisoloko eta Marquet, azkarrenak

Zizurkilgo II. Duatloiko irabazleak eta, beraz, Euskadiko txapeldunak bihurtu dira Joanes Goitisoloko eta Maddi Marquet

Naiara Roldan de Aranguiz
Zizurkil

Zizurkilgo II. Duatloia izan zen jokoan larunbatean, eta bertan Joanes Goitisoloko, Urko Herranek eta Aimar Muruak osatu zuten gizonezkoen podiuma eta emakumezkoena Maddi Marquetek, Ines Morenok eta Olaia Jauregik. Esprint modalitateko Euskadiko Duatloi Txapelketa zegoen jokoan, eta Joanes Goitisoloko eta Maddi Marquet izan ziren txapeldunak.

Guztia 230 parte hartzaile inguruk, federatu eta federatu gabekoek, hartu zuten parte proban. Joxe Arregi plazatik abiatu

eta helmugaratu ziren kirolariak, eta bizikleta trantsizio gunea, berriz, Danenako futbol zelaiaren egin zuten. Giro paregabea arnastu zen Zizurkil. Herria bat eginda duatloiarekin eta boluntarioak han-hemenka sakabanatuta egon ziren; batetik, kirolariek ibilbidea arazo gabe jarrai zezaten eta bestetik ikusleek zirkuitua errespeta zezaten.

Gizonezkoen kasuan, lasterketa hasieran iazko txapelduna kokatu zen lehen postuan: Urko Herran. Baina lasterketa amaieran bigarren postuan bukatu zuen. Emakumezkoetan, iazko lehen postua errepikatu zuen Maddi Marquet donostiarrak.

Emozioak jota, negarrez zeharkatu zuen helmuga Marquetek, zinta eskuetatik askatu ezinda.

Gizonezko federatuetan, beraz, lehenengoa Joanes Goitisoloko (Gernika-Lumo, 55.18) izan zen, bigarren Urko Herran (Gasteiz, 56.33) eta hirugarren Aimar Murua (Andoain, 56.46). Emakumezko federatuetan, lehenengoa Maddi Marquet (Donostia, 1.06.22), bigarren Ines Moreno Sanchez (Gasteiz, 1.09.22) eta hirugarren Olaia Jauregi (Donostia, 1.09.44) izan ziren.

Gizonezko ez federatuetan, lehenengoa Ander Goenaga izan zen (Donostia, 59.48), bigarren Ekaitz Otegi (Donostia, 1.02.17)



230 parte hartzaile izan zituen probak. N. ROLDAN DE ARANGUIZ

eta hirugarren Mikel Etxeberria (Zumaia, 1.03.11). Emakumezko ez federatuetan, lehen postua Maider Martinek (Hernani, 1.14.11) lortu zuen, bigarren Alba Mendazonak (Elorrio, 1.14.25),

eta hirugarren Amaia Bernalek (Oñati, 1.19.30). Aiztondoko lehenengoak helmugan, Aitor Tejeria (59.06) eta Leire Lizarralde (1.15.06) billabonatarrek izan ziren.

Jokin Eizmendik jantzi du txapela Gorostidi Harrian



XV. Gorostidi Harria Txapelketaren sari banaketa. L. CARRASCO

L. Carrasco Aduna

Gorostidi Harria Txapelketaren XV. edizioa izan zen jokoan igandean Adunako pilotalekuan, eta Jokin Eizmendik jantzi zuen txapela aurtengoan ere, minutu bat eta 55 segundoko markarekin, iaz baino 15 segundo gehiago. Bost harrirekin aritu ziren lanean, harri bakoitzeko bi altxaldi eginez: 150 kiloko kubikoa, 160 kiloko zilindro zaharra, 155 kiloko errektangular zaharra, 100 kiloko bola (kolarik gabe) eta 139 kiloko harri baldarra.

Segundo gutxira herri kirol munduan hasiberria den Azpiazu izan zuen, bi minutu eta 32 se-

gundoko denborarekin. Hirugarren postuan sailkatu zuen Goenatxo (3.33), laugarren Izagirre (3.44), bosgarren Galarraga (3.45), seigarren Guzta (4.23); zazpigarren Royo (5.49) eta zortzigarren Garmendia, azkar hasi, eta azken altxaldia ezin burutu gabe geratu zena.

Gorostidi Harria Txapelketaren barruan erronka bereziak izaten dira urtero. Horietatik bat 208 kiloko zilindro zaharra bi eskuz altxatzea da, harri jasotzaileak 100 euroko sari berezia eskuratuko. Azken erronka egitea lortu zuten Eizmendik eta Guzta-k, eta probaren erdibidean geratu zen Galarraga.

Ait Chaou eta Zubillaga izan dira bizienak Amasan

Leyre Carrasco

Amasa-Villabona

Loatzoko Igoera-Jaitsieraren 29. edizioan 63 korrikalarik parte hartu zuten igandean eta helmuga zeharkatzen lehenak Hassan Ait Chaou billabonatarra eta Oihana Zubillaga anoetarra izan ziren.

Ait Chaouk 44 minutu eta 54 segundo behar izan zituen Loatzoko igo eta jaisteko. Segundo gutxira helmuga zeharkatzen bigarren izan zen Iker Eceiza ibartarra, 45.30ko denborarekin. Hirugarren postuan sailkatu zen Eneko Gurrutxaga amasarra, 47.31ko denborarekin. Azken hori izan zen, beraz, helmuga zeharkatu zuen lehen herritarra.

Zubillagak 53 minutu eta 38 segundo behar izan zituen lasterketa amaitzeko. Leire Elola tolosarra izan zuen atzetik, eta bi minutu beranduago zeharkatu zuen helmuga. Hirugarren Irene Iturria bidaniarra sailkatu zen, 57 minutu eta 18 segundoko denborarekin.

Amasako gazteek eta Uxo Toki elkarteak antolatu dute lasterketa, eta amaieran guztiek hamai-ketakoa egin zuten elkartearen. Hainbat produktu ere zozkatu zituzten korrikalarien artean.



Elola, Zubillaga eta Iturria, emakumezkoen podiuma. J. ARTUTXA



Gurrutxaga, Ait Chaou eta Eceiza, gizonezkoen podiuma. J. ARTUTXA



ASTEARTEA, 2023KO APIRILAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Txuleta goxoena, San Esteban elkartearena

Gastronomika jardunaldien barruan, bonba jaleen txapelketan Jose Ramon Gutierrez izan da bonba gehien jan dituen



Epaimahaiko kideak, elkarrekin prestatutako txuleta dastatzen, larunbatean, Berazubi auzoan. J. MIRANDA

Erredakzioa Tolosa

Berazubi auzo elkarrekin antolatuta IV. Gastronomika Jardunaldiak izan dira pasa den aste osoan zehar. Gastronomiari lotuta, otorduez, ikastaroez edota lehiaketek gozatzeko aukera izan da. Azken horiei dagokienez, hainbat izan dira, ogitartekoena, entsalada errusiarrena, patata tortillarena edota tabernen arteko pintxoena, eta tartean baita berriak eta bitxiak ere, bonba jaleen txapelketa, kasu.

Larunbat arratsaldean egin zuten bonba txapelketa. Bederatzi pertsona ausartu ziren parte

hartzer, eta Jose Ramon Gutierrez tolosarra izan zen irabazlea 26 minutuan hamabi bonba jan ostean. Eceiza, Rafa Gorrotxategi, Gozona eta Saizar gozogleek eginiko 200 bonba jarri zituzten. Bakoitzak, beraz, 22 bonba zituena mahai gainean, chantilly, esne-gain eta kremazkoak, eta minutu bateko gehienezko atsedendaldiak eginez, bonba gehien iraun zuena, hamabira iritsi arte, eta gainerakoak pixkana erretiratzat joan ziren. Kontxu Ibargoien usurbildarra izan zen gehien iraun zuen bigarrena.

Txapelketako irabazleak 100 euroko saria jaso zuen. Ekimenak ikusmin handia sortu zuen, eta jende ugari gerturatu zen Berazubiko Tolosa CF plazara.

Horren aurretik, Tolosa eta Ibarrako elkarrekin gastronomikoen arteko parrila lehiaketa egin zuten. Bederatzi elkarrekin parte hartu zuten, eta San Esteban izan zen irabazlea. Atzetik sailkatu ziren Iurre eta Aiz-Orratz elkarrekin.

Bi herrietako elkarrekin gastronomikoen arteko lehia igandean ere izan zen, bakailao lehiaketan. Astea borobiltzeko, berriaz, bazkaria egin zuten.

ASTEARTEA 25

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Alegiako festak antolatzeko bilera irekia, kultur etxean, 18:30ean.

Amezket. Kepa Iribar Elizegiren 72 ordu lana aztertuko dute irakurle taldean, kultur etxean, 19:00etan.

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik 10:30ean abiatuta. Ondoren, hamaketakoa.

Berrobi. Irakurle taldeak Nerea Ibarzabalen *Bar Gloria* liburua aztertuko du. Liburutegian, 19:00etan.

Tolosa. Ingeborg Bachmann-en *Al-dibere* lana aztertuko dute Galtzaundiren tertulia literarioan, Idoia Santamaria itzultzailea bertan izango da, Yurre Ugartek dinamizatuta. Kultur etxean, 19:00etan.

Ikus-entzunezkoak

Amasa-Villabona. Izaskun Arandia-ren *My way out*, Gurean, 19:30ean.

28 KANALA

08:00. Kirolak Tolosaldean

15:30. Tolosaldea Gertutik

17:00. Eugeniren txokoa

21:30. Tolosaldea Gertutik

22:00. Urrutiajunbea

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.

10:00. Patxadaz. Elkarriketak.

12:30. Pasahitza. Albisteak.

14:00. Sendabelarrak Ainitze Salarekin.

18:00. Letren errepublika. Literatura.

20:00. Hazka. Podcast feminista.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. L. Azpiroz Galarza. Larramendi, 6. 943 67 5118.

TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalaretan lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro hodeitsua. Egun osoan zehar hodeiak nagusi izango dira. Goizean behe-hodeiak izango dira eta arratsaldean erdi eta goi-mailako hodeiak, non azken orduetan ez den baztertu behar tantaren bat edo beste botatzea. Hala ere, gehienez ateratu eutsiko dio. Haizea goizean aldakor ibiliko da eta arratsaldean ipar/ipar-mendebaldera egingo du. Tenperatura zertxobait igokoa da, 19-21 graduan joz goia.

Bihar. Giro nahasia. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta euri langar pixka bat izango da. Goiz erdi edo eguerdirako atertuko du eta ostarteak irekitzen joango dira. Arratsaldean hodeiak eta ostarteak izango dira, baina ezegonkortasun pixka bat egongoenez ez da baztertzeko hodei hauek zaparradaren bat edo beste uztea. Haizea goizean aldakor ibiliko da, arratsaldean aldiz ipar-ekialdetik. Tenperatura igo egingo da, 21-23 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm



zurekincoach.com
PERSONAL & EMPRESARIAL

ZURE ALDAKETAN
BIDELAGUN

Donosti etorbidea 22,
16 pabilioia
TOLOSA

686 73 88 15

info@zurekincoach.com

www.zurekincoach.com